

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Foru Komunitateak eta Euskadik Nafarroako trenbide korridorea eta euskal Y-a lotzeko azterketan aurrera egin dute

*Ayerdi lehendakariordeak eta Ekonomiaren Garapen eta Azpiegituretako sailburuak lan-bilera bat izan dute gaur goizean*

Ostirala, 2017.eko maiatzak 12

Manu Ayerdik, Nafarroako Gobernu Garapen Ekonomikorako lehendakariordeak eta Arantxa Tapiak, Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegituretako sailburuak, lan-bilera bat izan dute gaur goizean Iruñean, eta bilera horretan, Foru Komunitateko trenbide korridorearen eta euskal Y-aren arteko loturaren azterketan aurrera egin dute.



Lehen planoan, Manu Ayerdi lehendakariordea eta Arantza Tapiak sailburua; atzean, Peio Ayerdi eta Larraitx Gezala.

Horrez gain, Ayerdi lehendakariordeak sakonean ezagutu ditu Euskadik eta Estatuak hartuko erabakiak prestazio handiko trena hiru euskal hiriburuetara heltzeko irtenbidea emateko. Helburua garraio bide hau Iruñera heltzea hobeto definitzen duten gogoeta-elementu berriak izatea da, eta horrenbestez, gaur egun, Nafarroako hiriburuan dagoen trenbide-begizta kentzea.

Bi Gobernuak bat datoz Foru Komunitatea eta Europako erdialdea trenbidez lotzeko "nahitaez Nafarroak euskal Y-arekin lotura zuzen eta azkarra" izan behar duela. Horrela, Iruñea Euskal Autonomia Erkidegoko hiru hiriburuekin eta Pasaia eta Bilboko portuekin trenbidez lotuko da.

Bestalde, euskal Y-Iruña-Castejón lotura Atlantikoko korridorea eta Mediterraneoko korridorea lotzeko ibilbide izango da. Mediterraneoko korridorea, trafiko mistoetarako, salgaietarako eta bidaietarako korridorea da, Zaragozatik, Frantziako sarearekin lotzen den bideraino, euskal Y-aren bitartez.

Foru Komunitatea eta Euskadi "hertsiki ari dira elkarlanean" ibilbideak finkatzen eta bi komunitateetako trenbide-sare berrien funtzionaltasuna ezartzen, "trenbideak bere lurraldeetako lehiakortasuna, lotura eta garapen iraunkorra hobetzeko duen zereginaz jabetuta".

Gogoratu behar da bi administrazioek Protokolo bat dutela sinatuta Estatu Administrazioarekin batera, eta horren arabera, hiru alderdiek bi lurraldeetako prestazio handiak lotzeko irtenbidea elkarrekin eta adostuta

ezartzeko konpromisoa hartzen dute.

Ayerdik eta Tapiak aitortu dute "trenbide-lotura lehiakorra" izan behar dutela, "Europarekin lehenbailehen eta ahal dela irtenbiderik onenarekin lotzeko".

### **Euskadiren eta Nafarroaren arteko lankidetzaren bultzatzea**

Lan-bilera hau Ayerdi lehendakariordearen bulegoan egin da, eta bi agintariak izaten duten hirugarrena da, ekonomia eta enpresa lankidetzaren handitzeko helburuarekin, batik bat industria, berrikuntza eta turismo arloetan.

Gaur goizean egindako bileran Peio Ayerdik, Nafarroako Gobernuaren Garapen Ekonomikorako kabinete burua, eta Larraitz Gezalak, Eusko Jaurlaritzaren Garapen eta Azpiegituraren Saileko Kabinete eta Komunikazioko zuzendariak, ere parte hartu dute.